



2009-10 IKASTURTEA

DEIALDIA
EUSKADIKO 8. OLINPIADA MATEMATIKOA
EDUARDO TXILLIDA OLINPIADA

(DBHko 2. mailako ikasleentzat)

SARRERA

Aurreko Olinpiadetan ikastetxeen partaidetza oso postiboa izanda, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak **VIII. OLINPIADA MATEMATIKO**rako deia egiten die DBHko 2. ikasturteko ikasleei. Bertan, irakaskuntza maila hori ematen duten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztiek har dezakete parte.

1- HELBURUAK

- Matematika arloa jenderartzea, irakasle eta ikasleentzat hezitzaile eta jostagarri den jarduera batekin.
- Parte-hartzaileen senide eta gizarte inguruetara, Matematikaren ezaguera zabaltzea
- Problemen ebazpenaren bidez ikasleengan Matematikarako zaletasuna bizkortzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza maila horretako ikastetxeen eta Matematikako irakasleen, eta, jakina, ikasleen arteko harremana eta ezagutza sustatzea .
- Sormena, erabakiak hartzeko gaitasuna, pentsaera dibergentea, eta egoera berriei aurre egiteko trebezia eta ez-ohiko problemak ebazteko ahalmena sustatzea.
- Iazko Olinpiadan izandako ikastetxeen partaidetza sendotzea eta gehitzea.



2- OINARRIAK

- 1.- Olinpiadako batzorde antolatzailea osatuko duten Berritzeguneetako kideak izendatuko ditu Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak.
- 2.- Parte-hartzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko DBHko 2. mailako ikasleak izango dira.
- 3.- Problemak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan eta orri berean agertuko dira.
- 4.- Olinpiada bi alditan egingo da, eta bi aldietako problemak Batzorde Antolatzaileak proposatuko ditu

Lehenengo Aldia : Ikastetxe bakoitzeko ikasleen hautaketa (otsailaren 26an)

Batzorde Antolatzaileak 4 problemaz osaturiko proba bat bidaliko du ikastetxe guztietara. Proba horren bidez ikastetxeak bere ordezkariak hautatuko ditu ondorengo irizpidearen arabera:

- DBKko 2.mailako 4 talde edo gehiago dauzkaten ikastetxeek: 3 ikasle asko jota.
- Gainontzeko ikastetxeek: 2 ikasle asko jota

Proba otsailaren 26an egingo da, goiz parteko lehen orduetan, eta gutxi gorabehera 2 orduan. Horretarako, astebete lehenago eta e-mailez, bidaliko zaie ikastetxeetako irakasle arduradunei probari dagokion dokumentazioa.

Bigarren aldia. Lurreldekako aldia. (maiatzaren 15ean)

Fase honetan, ikastetxe barruko fasean hautatutako ikasleek hartuko dute parte. EAEko hiru hiriburuetan egingo da.

5.- Maiatzaren 15eko Lurreldekako aldi honetan Matematikako 4 problema proposatuko dira. Parte-hartzaileek norberaren marrazketa-tresnak eta kalkulagailuak erabiltzeko aukera izango dute

6.- Olinpiadako batzorde antolatzaileak osatuko du ebaluazio-batzordea. Beharrezkotzat jotzen badu, Bigarren Hezkuntzako matematika-irakasleen laguntza eska dezake, irakasle horiek ikasle parte hartzaileek egindako lanik ez badute ebaluatzeko.

7.- Olinpiada honetan parte hartzeak bertako oinarriak onartzea dakar.

Oinarri hauen gainean argibideak ematea Batzorde Antolatzaileari dagokio.



3- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lehen azaldutako oinarriak onartzeaz gain, ikastetxe bakoitzak irakasle bat izendatuko du Batzordearen eta ikastetxearen arteko harremanetarako.

PARTE HARTZEA: **otsailaren 15a baino lehen**, honako web orrialde honetan : www.saretik.net/mateolinpiada. Bertan agertuko dira beharrezkoak diren datu guztiak.

Oharra: Batzorde Antolatzailearen eta irakasleen arteko harremanak e-mailez egingo direnez, inskripzioa egitean jarritako irakasle arduradunaren posta elektronikoaren helbidea Olinpiada osoa bukatu arte mantentzea eskatzen da. Edozein aldaketa gertatuz gero, garaiz jakinarazi behar zaio Batzordeari.

Lehenengo aldia –ikastetxeetakoa, alegia– egin ostean, eta **martxoaren 15 baino lehen**, bi edo hiru ikasle hautatuen datuak web orri horren bidez bidali beharko ditu ikastetxeak.

4. – GARAPENA ETA EGUTEGIA

- **Otsaila:**
 - **Ikastetxeen parte-hartzea: otsailaren 15era arte**
 - **19an**: lehenengo aldiari dagozkion problemak jasoko ditu e-mailez irakasle arduradunak
 - **26an**: ikastetxe bakoitzean egingo da lehenengo aldia.

Ikastetxe bakoitzeko irakasleek aldi honetako 2 edo 3 ikasle onenak hautatuko dituzte.

- Ikastetxeek, **martxoaren 15** baino lehen, hautatutako ikasleen izenak bidaliko dituzte.
- **Maiatza:**
 - Lurraldeko aldia **maiatzaren 15ean** egingo da, goizean, garaiz jakinaraziko diren ordu eta lekuetan .
 - Irabazleen izenak **maiatzaren 21etik** aurrera jakinaraziko dira.
- **Ekaina:**
 - Sari-banaketa

5- LURRALDEKAKO ALDIKO SARIAK



- Parte hartzen duten ikasle guztiei Diploma bana emango zaie.
- Sailkapeneko aurreneko 12 ikasleek sari bereziak izango dituzte:
 - **Lehenengo 4rak**: Eusko Jaurlaritzaren beka bat, Europako herrialde batean 4 asteko hizkuntza-ikastaldi bat egiteko
 - **5.etik 12.era** sailkatzen direnei hezkuntz-jokoak.
- **Lehen bi sailkatuek** ekain bukaeran Palma de Mallorcan egingo den Espainiako Olinpiadan parte hartzeko aukera izango dute. Irakasle batek lagunduko die, eta Hezkuntza Sailaren kontura izango dira gastu guztiak.